

Apreta beltzak

HALA ZIOEN bai gure lagun baten amonak: hemen dala abuztu nazkagarri hau! Aurten behintzat halakoxea izan da. Eskerrak joan den. Joate horretan, ordea, garuna urte bidean ere jarri zait eta memorian galdutako artxiboak, orbela askan bezala, ur gainera azaleratu...

Beroa lama, urtero udak dakarkidan luxu bakanetakoa zuzeneko pilota-jokoak bizitzeko gozamen da. Errebotea eta laxoa, gehienetan. Eskuz baino zestoa, xixtera edo guantearekin jokatzeko direnak ditut gustukoago. Joko horiek plaza luzetan eta ordu luzez jokatzeko dira. Udaren nazkagarrirenetakoak direnez, ikuslearentzat itzala behar eta ia denetan platanoa (*Platanus x hispanica*) topatuko duzu plazaren txapel.

Umetatik gozatu izan dut errebotea. Aita eta osabak zestoa eskuan, kirola ez den kirol bakarra jokatzeko itzaletik ikustea, memorian sekula galduko ez diren artxi-boen baheak jasotzen du. Markatutako artxiboa, markatutako gorputzaren memorian... Jokoa



JAKOBA ERREKONDO

Zubietako plaza aldameneko hibiskoa.

ikasteko toki onena, beti bezala, arriskutsuena da. Behin baino gehiagotan jaso dut pilotakada. Bat, ederra, berna-hezuraren danba. Kankatekoa jaso eta segituan izotza hankan banuen ere, egun osoa behar izan nuen nire onera inguratzeko hasteko. Ni hara bueltatzen, ordea...

Errebotea bizi duten plazan artean dotoreenetakoa den Beterriko Zubietakoan herrikoen arteko final bikaina ikusi nuen, gustura asko! Handik lau egunera Arraiotzen jokatu zen Baztan-Erreka izena duen XXXIII. laxo txapelketaren finala. Doneztebe-ko talde gazte kementsua emeki

menperatu zuen (9-3) Irurritako talde eskarmentudunak.

Apreta izaten dut urte sasoi horretan oinetako, baina txarolezko zapata berriekin baino gusturako izaten naiz horrelakoetan. Zubietakoan bezala Irurritako plazan bada platanoen gerizpea. Nik, baina, batean eta bestean *Hibiscus siriacus*, Siriako hibiskoaren itzala nahiago.

Hantxe daude toki arriskutsuena siriarrak: Zubietan Kaleberriko baratzean eta Arraiotzen Harotzeneako atarian. Urretan itxura ederrari eta uda osoko lore emanari eusten dietenez, taxuz loratzeko nahitaezko dituzten burdina eta kobrea eskura behar dituzte izan. Ingelesek oinetakoen lorea deitzen diote; itxura denez, garai batean oinetakoak garbitu eta distira berezia emateko erabiltzen zuten lorearen aterakina. Distira horren koloreari ere "hibisko beltza" deitzen zaio, nire apreten kolore bera. ■



JAKOBA ERREKONDO



Etxekalte

Mihura, *Viscum album*, genero txarra da. Janzakurra da, parasitua. Zuhaitzen adarretan bere burua landatzen du, sustraitu eta errotik kentzen dio izerdia ostatu eman dionari. Hark ez *si* eta ez *no* etorritakoa abegitsu hartzen du. Etxean bezala bestetxean. Mihurak tira eta tira, ordea, gero eta gehiago behar. Eta gero eta mihura gehiago. Zuhaitza, argazkian sagarrondoia (*Malus x domestica*), indarrez hustuko dute leher egin arte. Akitu. Akabatu arte. Sagarrondoia hilda noren errapetik tirako du mihurak? Azkenean bera ere hil... ■

